

# 1914-1918ko gerrako euskal presoek Alemanian grabatutako kantuak

Canas Quintana, Elena; Menoyo Peral, Ainara; Bidegain Aire, Eneko

## 1. Sarrera

Berez elkarrekin loturarik ez daukaten bi gertakari edo arlo elkartu dira lan honen aztergai: mundua astindu zuen gertakari lazgarri bat, Lehen Mundu Gerra; eta hizkuntzari buruzko ikerketak. Alemaniako ikerlari batzuk gerra hartako presoak edukitzeaz baliatu ziren, preso haietako batzuen ahotsak grabatzeko. Grabaketa batzuk euskaldunenak ziren. Ikerlarien asmoak ez zeukan zerikusirik gerrarekin, helburua baitzen euskara aztertzea. Baina grabaketa haiek gaur egun arte kon-



Presoak grabatzen

tserbatu izanak balio du ikerketa berezi baterako: batetik, nahiko isilpean utzi izan den jende mota bat ekarri nahi da argira, hala nola Alemanian preso egon ziren soldaduen – eta kasu honetan, soldadu euskaldunen – kasua; bestetik, grabaketa horietan agertzen diren pertsonen euskal kulturaren historian ere utzi dute marka, euskal kantuen grabaketa zaharrenetarikoa parte hartu zutelako. Gerrako sufrimendua euskal kantuen historiarekin lotuz, lan original baterako gaia badago: bai gerra lantzeko enfokeari dagokionez, bai euskal kulturaren ikerketen lanketari dagokionez.

Berlingo Etnologia Museoak eta Humboldt Unibertsitateak dauzkate gerra garaiko grabaketa horiek, 82 dokumentu, orotara. Berriki, Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eskuratu du grabaketa horien kopia bat, baina ez dira jabe bihurtu eta eskubideak Berlingo Museoarenak eta Humboldt Unibertsitatearenak dira. Hauek, grabaketen erabilera eta zabalkundea baldintzatu dizkiote EKeri: erabil ditzakete ikerketarako, edo zabalkundea ikerketarekin lotu behar da.

Altxor bat eta bi helburu: ikerketa eta zabalkundea. Azken finean, kezka bati erantzuteko aukera bat da gai hau. Nola transmititu eta jakinarazi Euskal Herriaren historia eta historia horren atalak? Gisa askotan erantzun dakiok galdera horri, eta kasu zehatz honek balio du bere ekarpentxo egiteko, transmisio horretan. Kasu zehatz horretatik abiatuz (14ko gerrako preso euskaldunei grabatutako kantuak), ikerketa eta dokumental bat egin dira euskal kantuen historia harilkatuz gerra garaiko sufrimenduekin.

Artikulu honetan, hasteko, azalduko da zein den grabaketa horien jatorria eta zein testuinguru historiko eta kulturaletan egin ziren. Ondoren, xeheki agertuko dira grabaketetan parte hartu zutenen pertsonen biografiak eta grabatu zituzten kantuen zerrendak. Azkenik, gogoeta bat egin da historiaren transmisioaren garrantziaz eta grabaketa horiei buruzko lanaren zabalkundeari; ildo horretan, dokumental berezi bat egiteko hautua egin da, eta dokumental horrek izan duen harrera deskribatuko da.

## **2. Gerra, euskara ikertzeko aukera**

### **2.1. Lehen Mundu Gerra Euskal Herritik begiratuta**

Ikerketa hau urte seinalatu batean egin da, garai hauetan ospatzen ari baita Lehen Mundu Gerraren mendeurrena, eta gerra hori baitu ardatz lan honek. Gerra horretaz asko idatzi da azken urteetan, 2014an bereziki, hain zuzen, mendeurrenaren haritik. Ordu arte oso gutxi idatzi zen Euskal Herriko ikuspegitik (Bidegain 2013), baina hori aldatu da. Ikerketa eta bilketa lan franko argitaratu dira azkenaldian. Eneko Bidegainek doktore-tesian (2013) ikertu zuen Eskualduna astekariak izan zuen jarrera Lehen Mundu Gerran izan zuen, eta ondorioztatu zuen euskarazko astekari hark goraipatu zuela gerra egin zuten euskaldunak “*frantses eredu-garriak*” zirela. Bidegainek beste liburu batean (2014) ere azaldu du gerra hark Euskal Herriaren zer nolako eragina izan zuen, bai gerra egin zuten soldaduen ikuspegitik, bai Euskal Herriko bizitzaren ikuspegitik eta baita ere – eta bereziki – gerra haren testuinguruak (aurreko hamarkadetako eta onoko urteetako politikak) Euskal Herriaren zuten ondorio politikoen ikuspegitik.

Gerrarraren kontakizun militaragoak edo ikuspegi humanoagoak landu dituzte beste liburu batzuek. Joël Rocafortek mendeurren honen harira berrargitaratu du 1997an idatzi zuen liburua, Lapurdi kostaldeko jendearen bizipenei buruzkoa. Jacques Garatek (2014) ere argitaratu zuen 80ko hamarkadan egin zuen maste-rreko lana, euskal intsumitu eta desertoreei buruz. Xipri Arbelbidek irratirako elkarrizketak egin zizkien soldadu ohiei, oraindik bizirik zeuden garaian. Elkarrizketa haiek liburu batean bildu ditu (Arbelbide 2016). Patri Urkizuk (2015) lekuko eta testu bilketa lan mardula egin du, plazaratuz garai hartako gutunak, artikuluak edota bertsoak.

20.000 eta 25.000 bitartean izan ziren gerrara joan ziren euskal soldaduak, 20 eta 49 urte bitarteko gizonezko guztiak. Frantziako armadaren baitan egin zuten gerra. Haietatik ia 6.000 lagun hil ziren gerra hartan, hala nola, Ipar Euskal Herriko orduko biztanleriaren %3 (Bidegain 2014). Batzuk salbatu ziren, intsumituak izatearen ondorioz ez baitziren gerrara joan, edo gerratik ihes egin zutelako, desertore moduan. Gerrara joan behar zutenen %17 zeuden desertoreen eta intsumituen artean (Garat 2014).

Gerran ibili ziren euskaldun horietatik batzuk preso sartu zituzten Alemanian. Horietako batzuen ahotsak grabatu zituzten Alemaniako ikerlari batzuek, batez ere Hermann Urtel hizkuntzalariak. Grabaketen asmoak ez zeukan lotura zuzenik gerrarekin, baina gerra aukera bat izan zen ikerlari horientzat, munduko hizkuntza ugariatiko jendea grabatzeko, gati buak eskura baitzituzten. Begi bistakoa da alemanek bazekitela eta kontuan hartu zutela ofizialki frantsesak ziren preso guztiak ez zirela frantsesak: ohartuak ziren haietarik batzuk beste hizkuntza batzuetan mintzatzen zirela. Jose Maria Etxebarriaren ustez (Etxebarria, Trebitsch, Urtel, Bouda 2008), Hermann Urtel hain segur itzultzaile lanetan aritu zen gerrako presoekin, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoko presoekin biltzeko aukera izan zuen eta haiek grabatzeko ideia “*bikaina*” izan zuen.

## 2.2. Euskal Herria, Alemaniatik begiratuta

### 2.2.1. Euskal ikasketak Alemanian

Euskara eta Euskal Herria inspirazio iturri izan dira Euskal Herritik kanpoko hainbat ikerlari zientifikorentzat. Euskal ikasketei buruz Europan egin diren ikerketen jatorria XVI. eta XVIII. mendeen artekoa da Idoia Estornésen (Estornés 1992) arabera. Ikerlari ezagunenetako bat Wilhelm von Humboldt (Altzibar 1991; Zabaleta Gorrotxategi 2005) izan zen, XVIII. bukaeran.

1907an, Parisen, ‘Revue Internationale des Etudes Basques’ aldizkaria sortu zuen Julio de Urquijok, eta gero Eusko Ikaskuntzak kudeatu zuen. Aldizkariaren helburuak ziren euskal ikasketetan zegoen “*deskoordinazioa*” gainditzea eta Europan euskarari buruz egiten ziren ikerketa guztien arteko kolaborazioa sustatzea. Lan honetan etena gertatu zen 1914tik 1918ra, Lehen Mundu Gerraren ondorioz (Estornés 1992). Deigarria da etenaldi horretan egindako grabaketak egotea, orain, ikerketa lan honen oinarrian. Hots, euskararen inguruko ikerketan ez ziren gelditu, ezta gerra garaian ere. Alemaniako ikerlariak jarraitu zuten euskal kultura aztertzen. Gerrako presoak erabili zituzten euskal linguistika eta literatura ikertzeko, leiendak, kondairak, kantuak edota superstizioak jasoz (Urtel 1984).

Eusko Ikaskuntzak laguntzaile sare zabala zeukan Europan gaindi, eta be-  
reziki Alemanian, hango unibertsitateak euskararekiko zeukan aspaldiko interesa-  
ren ondorioz. Dena den, ez zen Alemania euskarari buruz ikertu zuen Europako  
herrialde bakarra. Dozena bat zeuden, hala nola, Alemania, Austria, Belgika, Txeko-  
sllovakia, Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Herbehereak, Italia, Polonia, Erru-  
sia/Sobietar Batasuna eta Suitza. Hainbat herrialde izan ziren unibertsitateetan  
euskara azterten zutenak. Alemanian adibidez, zazpi unibertsitateetan ikasten zen:  
Gottingen, Berlin, Erlagen, Tübingen, Haburgo, Kolonia eta Bonn. Herrialde hori  
zen euskarari buruz gehien ikasi zen tokia. Austriako hiru unibertsitateetan ere lan-  
tzen zuten euskara: Viena, Gratz eta Innsbruck. Frantzian, aldiz, Bordele, Tolosa,  
Estrasburgo, Sorbona eta College de France unibertsitateak ziren euskara lantzen  
zutenak. Erresuma Batuan, Londres eta Oxford-eko unibertsitateetan zeukan tokia  
euskarak. Italian, Turin eta Bolonia ziren euskararen lekuak, Holandan Leyden, Po-  
lonian Cracovia, Errusian Leningrad (gaur egungo San Petersburgo) eta Suitzan  
Geneva eta Zurich. Belgikako eta Txekoslovakiako unibertsitateetan ez zen eus-  
kara ikertzen, baina ikerlari batzuek bai ikertu zuten. Espainian ez zieten garran-  
tziarik euskal ikasketei (Estornés 1992).

### 2.2.2. Alemaniako ikerlariak

Ikerketa honen ardatza izanik Alemaniako ikerlariak grabatutako euskal kantuak,  
interesa batez ere jarri dugu Alemaniako ikerketetan. Euskal ikerketak erromanti-  
zismo garaian hasi ziren Alemanian. Mugimendu honek erakarri zuen arimaren eta  
gizakiaren fakultate espiritualen azterketa hizkuntza adierazpenaren bitartez. Her-  
mann Urtelek (1984) azaldu du hizkuntza, kantua edota literatuar herri baten ari-  
maraino joaten direla eta horregatik ikertu zirela. David Lindemann-ek (2010)  
osatu du ikerlari alemanen edota alemanez idatzitako argitalpenen datu base bat,  
eta hor ageri dira azken mendeetan euskara eta Euskal Herria ikertu dutenen argi-  
talpenak, 1500tik aurrerakoak. Arnold von Harff izan zen lehenbizikoa: lexiko bat  
kaleratu zuen 1500ean. Baina euskarari buruz lehen argitalpen alemana 1799an  
idatzi zuen Wilhelm von Humboldt-ek. Humboldt (1767-1835) ez zen nornahi, hiz-  
kuntzalari izateaz aparte, Berlingo unibertsitatearen sortzaile, Alemaniako hezkun-  
tza ministro eta Alemaniako hezkuntza sistemaren sortzailea izan zelako. Euskarari  
buruzko haren lehen lana 1799koa da. Haren ondotik, 1809an, agertu zen Jo-  
hann Christophe Adelung (1732-1806) hizkuntzalariaren kapitulu bat eta Hum-  
boldt-en beste lan batzuk. Bigarren Mundu Gerra hasi bitartean, euskarari edo  
euskal kulturari, euskal historiari edo hizkuntzaren egoerari buruzko lan gehiago  
alemanez egin zituztenak hauek ziren: Adelbert von Chamisso (1781-1838), Jo-  
hann von Charpentier (1786-1855), Carl August Friedrich Mahn (1802-1887),  
August Friedrich Pott (1802-1887), Adolf Loning, George Phillips (1804-1872),  
Karl Müllenhoff (1818-1884), Willem J. Van Eys (1825-1908), Heymann Steint-  
hal (1823-1899), Arno Grimm (1830-1887), Reinaldo Brehm (1830-1891),  
Georg Gerland (1833-1919), Friedrich Müller (1834-1898), Karl Hannemann  
(1839-1896), Georg von der Gabelentz (1840-1893), Victor Stempf (1841-  
1909), Wilhelm Brambach (1841-1952), Hugo Schuchardt (1847-1927), Hein-  
rich Winkler (1848-1930), Otto Stoll (1849-1922), Theodor Linschmann



Karl Bouda

(1850-1940), Eberhard Gothein (1853-1923), Wilhelm Meyer-Lubke (1861-1936), Georg Buschan (1863-1942), Adolf Kolsen (1864-?), Christian Cornelius Uhlenbeck (1866-1951), Johann Topolovsek, Richard Karutz (1867-1945), Adolf Schulten (1870-1960), Joseph Karst (1871-1962), Hermann Urtel (1873-1926), Fritz Mielert (1879-1947), Rudolf Trebitsch (1876-1918), Walter Lehmann (1878-1939), Theodor Kluge (1880-??), Ernst Lewy (1881-1966), Georg Schurhammer (1882-1971), Leo Spitzer (1887-1960), Georg Weise (1888-1978), Kurt Tucholsky (1890-1935), Gerhard Rohlfis (1892-1986) Wilhelm Giese (1895-1990), Gerhard Bahr (1900-1945), Karl Bouda (1901-1979), Ernst Zyhlarz (1890-1964), Manfred Langhans-Ratzeburg, Bruno H. Fiebinger, Emmy Friedrich (1911-??), Johannes Herbst, Felix von Pogrányi-Nagy, Ilse Steinhoff eta Helmut Demuth.

Euskal Herriari eta euskarari buruzko ikerketa olde horrek etenaldi bat izan zuen 1936ko gerraren eta Bigarren Mundu Gerraren ondorioz (Estornés 1992). 1948tik landa, alemanak berriz ere hasi ziren ikerketa horietan, hala ere. Gerra aurreko ikerlari emankorrenetako bat (Lindemann 2010) izan zen Humboldt (Zabalera Gorrotategi 2005) bera, hamahiru argitalpenekin. Theodor Linschmann apaiz protestante eta Berlingo Euskara aldizkariaren sortzaileak (Estornés 1992) 11 lan argitaratu zituen. Karl Hannemann hizkuntzalariak 6 lan idatzi zituen eta Euskal Herriko hainbat aldizkaritan ere parte hartu zuen. Hugo Schuchardt-ek 80tik gora lan argitaratu zuen. Uhlenbeck-ek hamabi lan idatzi zituen alemanez, euskal gaiei buruz. Meyer-Lübke Suitzan sortu zen eta Alemanian aritu zen filologo lanetan, Bonneko Unibertsitatean; zortzi lan dauzka. Karl Bouda Berlingo unibertsitateko filologoak 40tik gora lan baditu idatziak alemanez 1931tik 1973 bitartean. Gerhard Bahr haurtzarroan eta nerabezaroan Gipuzkoan bizi izan zen hizkuntzalariak (Estornés 1992) baditu zazpi testu idatziak. Ernst Lewy Berlingo Unibertsitateko hizkuntzalariak ere beste hainbeste lan idatzi zituen alemanez.

Izen guzti horien artetik lau azpimarratu behar dira, ikerketa honi dagokionez: Rudolf Trebitsch, Hermann Urtel, Ernest Lewy eta Karl Bouda. Trebitsch izan zen euskara fonografoan grabatu zuen lehen ikerlarietarikoa bat. Hermann Urtelek grabatu zituen euskal gatibuen kantuak eta Lewy eta Boudak aztertu zituzten.

## 2.3. Audio grabaketak

### 2.3.1. Lehen Mundu Gerra aurreko grabaketak

Fonografoaren hastapenetik Lehen Mundu Gerra bitartean, euskarazko grabazioak egin zituzten. Horietatik batzuk desagertu edo hondatu egin dira urteen poderioz. Nahiz eta grabazio horiek eskura ez izan, horien berri badago, Inaxio Lopez de Ara-





Edison fonografo zilindrikoa

nak (2014) hauen inguruan ikertu eta publikatu baitu, aurrerago ikusiko dugun moduan.

1877an, Thomas A. Edisonek fonografo zilindrikoa asmatu zuen. Baina ez zuen 1889ra arte gzaratearen aurrean aurkeztu. Urtebete geroago lehenengo fonografo zilindriko komertzialak jarri ziren salgai eta 1893ko abuztuan Bilbora eta Donostiara iritsi ziren (Lopez de Arana 2014).

Fisikoki ezagutzen ditugun euskarazko lehen grabazioak, 1897-1898 urte bi-tartekoak dira. Grabaketa haiek Bilboko bi dendetan egin zituzten. Ybarra familiak grabaketa hauen zilindroak erosi zituen. Gaur egun, grabazio haien berri badugu, 1996an Bizkaiko Foru Aldundia haien jabe egin zelako eta 2014an digitalizazio lanak egin zituelako. Grabazio haien artetik aurki daitezke *Beti maite*, *Boga boga*, *Goizeko izarra*, *Hiru damatxo*, *Ume eder bat eta Agur nere bihotzeko kantuak* (Lopez de Arana 2014).

Aurkitutako beste grabaketa batzuk, 1900ekoak dira. Léon Azoulay-ek Parisiko Erakusketa Unibertsalean euskarazko zenbait grabazio egin zituen, hala nola: *Donostiako hiru damatxo*, *Herriyetan batzuben*, *Maitia, nun zira*, *Prima Eijerra* eta *Pello Joxepe* kantuak edota Bibliako zenbait pasarte. Hurrengoko euskarazko grabaketak Donostian egin ziren, 1905ean (Lopez de Arana 2015).

Lehen Mundu Gerra hasi baino urtebete lehenago, 1913an, Rudolf Trebitsch ikertzaile austriarra Euskal Herrira etorri zen. Bertan zegoela grabaketa batzuk egin zituen; besteak beste Resurreccion Maria Azkueren ahotsa ageri da grabaketa haie-tan, baina baita ere *Gernikako arbola* kantuarena edo hainbat ipuin eta kontaki-zunena. Grabaketak bi bildumatan banatuta daude, alde batetik Vienako bilduma eta bestetik Berlingoa (Lopez de Arana 2010).

### 2.3.2. Gerra garaiko grabaketak



Hermann Urtel

Lehen Mundu Gerran, 1916-1917 urte bitartean, Hermann Urtel erromanistak, George Schünemann musikariaren laguntzarekin grabazioak egin zizkien jatorriz Ipar Euskal Herrikoak ziren presoek. Gaur egunera 75 kantu iritsi dira, baina horiek denak Berlinen daude (Lopez de Arana 2014).

Hermann Urtel, Hanburgoko Unibertsitateko irakaslea zen. Lehen Mundu Gerra garaian hainbat hizkuntzetako presoek testuak grabatzeko aukera izan zuen, horien artean euskarazko kantuak eta testuak. Gerora, euskara asko interesatu zitzaion, eta euskara ikasten hasi zen; unibertsitatean euskara irakasteko planak eta hitzaldiak ematen zituen (Giese 1926).

Lourdes Izagirrek aztertu ditu Urtelen ikerketak eta euskararekiko zeukan interesa (Izagirre 2015). Urtelek berak aitortu zuen gaitibuen artean interes handiena piztu ziona "herri paregabe" hura izan zela, hala nola Euskal Herria: "Preso-esparruetan zeuden ehunka ordezkari ikusi ondoren ezin da besterik gabe 'tipo' uniforme bat antzeman. Txikiak, malguak, katu modukoak eta bizi-bizirik zirenak ikusten ziren, aldiz handiak, tenperamentu isileko bizkarzabal figurak ere bai", zioen Urtelek (Izagirre 2015). Haren pena zen presoek artean ez zegoela Hego Euskal Herriko euskalkietan mintzatzen zenik, euskalki haiek ere grabatu ahal izateko; beraz, lapurtera, nafar-lapurtera eta zuberera baizik ez zituen grabatu.



Edison argizari zilindroak

Hermann Urtelek eta George Schünemann musikologoak Edison markako fonografoa erabili zuten grabaketak egiteko argizariko xafletan, grabaketak entzuteko aukera ematen zuelako. Schünemann arduratzen zen presoek esparruetako grabaketak egiteaz (Izagirre 2015).

Grabaketa horiek guztiak, Ernest Lewy eta Karl Boudaren eskuetan gelditu ziren: Lewy alemanera itzuli zituen euskarazko testuak eta Boudak grabaketak fonetikoki transkribatu zituen (Etxebarria 2008).



Edison argizari zilindroak

Karl Bouda, Hanburgon jaio zen 1901ean. 16-17 urte baizik ez zituen, beraz, grabaketak egin zirenean, baina gerora ikerketarako bide eman zioten. 1936an hasi zen lanean Berlingo unibertsitateko irakasle gisa, baina lehenagotik ere lan franko argitaratu zuen euskarari buruz. Grabaketa haiek aukera eman zioten euskalkiak ikertzeko. Euskaltzaindiko kide ere izan zen (Etxebarria 2008).

Lehen Mundu Gerran, mundu osoko presoak egon ziren Alemaniako esparruetan, Zossen eta Wüendorf herrietan, Berlinetik gertu: Weinberg Camp eta Halfmoon Camp izeneko kanpamendu haietara eramaten zituzten arrazoi politikoengatik preso zeudenak (Lange 2011). Euskal presoak, ordea, Rottleberoden eremuan (Sachsen-Anhalt) egon ziren, hango zerrategian lanean (Izagirre 2015).





Edison argizari zilindroak

Preso esparruetan egondako aniztasun kulturalaz ohartu zirenean, Prusiako kulturako ministerioak bultzatuta eta Kaiser Wilhelm II Fund finantzatuta, presoek ahotsak grabatu zituzten, Wilhem Dougen eskutik, helburu linguistikoekin eta “*herri guztien ahotsen museoa*” sortzeko xedez (Lange 2011). Hots, presoekin esperimentuak egiten zituzten: bai etnologiarri buruzkoak bai musikari buruzko ikerketak (Izagirre 2015).

Zaila da jakitea zeren arabera aukeratzen zituzten presoak audio grabaketak egiteko. Normalean, lehenengo, jaioterria kontuan hartzen zen eta, ondoren, grabatuko zieten kantua edo istorioaren testua idaztea eskatzen zieten, haien dialektoan. Testu hori errepikatu behar izaten zuten grabagailuaren aurrean (Izagirre 2015).

Normalean, bakarka aritzen ziren presoak, baina binaka grabatutakoak ere badaude. Presoek ez zuten esplizituki abesten gatibu zeudenaren egoeraz. Baina, garai hartako testuinguruan jarritz, gatibu daudela interpretatu daiteke, Lourdes Izagirreren arabera (2015). Baina, Izagirrek adierazten duenaren arabera, presoak pozik joaten ziren eta eskatutako guztia egiten zuten. Hala ere, kontuan hartzeko, presoak grabatzera joaten baziren lanetik libratzen ziren. Gainera, grabatzen zen lekua ondo egokituta zegoen, ikatzeko berogailuak izaten zituzten (Izagirre 2015).

Grabazio guzti horiek batzeko, 1915ean Berlineko Komisio Fonografikoa sortu zuten. 1916-1918 urte bitartean grabatu zituzten disko guztiak. 1.651 argizarizko diskotan kantuak eta ahotsak batu zituzten eta 1.031 argizarizko xafletan, aldiz, kantuak eta musika. 1920an erakundea desegin zen, bi bildumak bananduz (Izagirre 2015).

Komisio Fonografikoak argizarizko 30.000 xafloko artxiboa sortu zuen, horietatik 34 xaflatan euskarazko 75 kanta gordetzen dira. Xafila bakoitzak bi minu-



Carl Stumpf (eskuin) eta Georg Schünemann (erdian) Tatar musikariak grabatzen. Francfort. 1915. Phonogramm Archiv, Deutsches Rundfunkarchiv - Historisches Archiv der ARD

tuko iraupena du (Izagirre 2015). 1920an, Berlingo Institutu Fonetikoa grabazioak argitaratzen hasi zen, liburuxka batean. Liburuxka horietatik 88-93 bitartean euskarazko grabazioei buruzkoak ziren (Etxebarria 2008).

Argizariko xaflak, Bigarren Mundu Gerran Leningradera, Sobietar Batasunera, eraman zituzten. 1960an, Ekialdeko Berlinera tokiz aldatu zituzten; 1989an Berlingo harresia erori zen eta 1991n Berlingo Etnologia Museora itzuli ziren grabaketak. Unesco-k Munduaren Memoria gisa izendatu ditu grabaketa horiek guztiak (Izagirre 2015).

### 2.3.3. Lehen Mundu Gerrako audioak gaur egun

2008an, Jose Maria Etxebarria etnografoak kantu hauen zerrenda eta transkripzioa publikatu zituen *Euskarazko grabaketak 1913-1917* liburuan (2008). Argizariko diskoak, Lautarchiv Soinuaren Artxiboan daude, Humboldt Unibertsitatearen ardurapean. (Izagirre 2015)

Gaur egun, grabaketa hauek Berlingo Etnologia Museoak ditu, guztira 75 euskal kanta daude. Berlingo Etnologia Museoak 2014. urtean, erakusketa bat egin zuen; bertan Lehen Mundu Gerraren argazkiak, objektuak eta grabaketak entzuteko aukera egon zen (Izagirre, 2015). Grabaketa horiek modu pribatuan entzun daitezke bakarrik, nahiz eta, egile eskubideak aspaldi indargabetuta egon. 100 urteko audioak izanda, audioak eskubide gabekoak izan beharoko ziren, hain justu, 70 urte pasa ondoren, obra guztien eskubideak libre gelditzen dira, baina, hala ere, audioen eskubideak museoak eta unibertsitateak daukate.

Badaude etekin ekonomikoaren bila dabiltzala pentsatzen dutenak, euskaldunei dirua ateratzeko. Inaxio Lopez de Aranaren ustez (2014), “*euskarazko grabazioen funtsa gaur egun duguna baino aberatsagoa izango litzateke, soinu grabatuaren politikak irekiagoak izango balira*”. Lopez de Aranak ezin izan zituen zabaldu Trebitschen grabazioak, debekatu ziotelako, “*trukean sosak nahi*” zituztelako:

“Bitxia da: euskal hiztun batzuek Euskal Herrian nahiz atzerrian egindako grabazio batzuen kontura etekin ekonomikoa lortu nahi dute, nola eta grabazio haiek euskaldunoi salduz. Euskarria beraiena delako jartzen dituzte trabak, ez edukien jabetza intelektualarengatik. Horrexek ematen die boterea, euskarriak” (Lopez de Arana 2014).

Grabaketa horiek argitaratzeko baimena emateko, Berlingo Etnologia Museo etnologia departamenduak ezinbestetzat jo du azterketa akademikoa egitea. Hain zuzen ere, grabazioak ulertzeko, ezinbestekoa ikusten dutelako Lehen Mundu Gerra garai hori testuinguruan jartzea. Euskal Kultur Erakundeak eta Berlingo Etnologia Museoak hitzarmena sinatu zuten, grabaketa horiek helburu zientifikoarekin erabiltzeko.

#### 2.4. Begirada bat euskal kantagintzari

Ikusi bezala, grabaketa horietako gehienak euskal abestiak dira, eta horrek garatzea XX. mende hasierako euskal kantagintza aztertzea. Lehen Mundu Gerrako garaiko euskal kantagintzari dagokionez, Jean Dominique Julian Sallaberry eta Resurrecion Maria de Azkueren kantutegiak aurkitu daitezke. Azkueren kantutegia da ezagunena. Euskal Herriko txoko guztietara bidaitu zuen kanta guztiak liburu batean bateratzeko. Honi esker, gaur egun garai hartan zein abesti kantatzen zuten badakigu. *Cancionero Popular Vasco*-n, 1.001 melodia aurki daitezke. 1912. urtean Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak lehiaketa bat sortu zuten herriko abestiak jasotzen zituzten bi bilduma saritzeko. Handik atera ziren bilduma bat zen, *Vox populi*, Azkuerena; bestea Donostiarena zen, Gure abendaren ereserkiak. Azkueren bildumak 1.689 melodia biltzen zituen, ahots bidezkoak eta 121 instrumental. Donostiaren bildumak, aldiz, 499 kantu zeuzkan eta 24 melodia. Azkuek 1922an argitaratu zuen, *Cancionero Popular Vasco* bilduma.

Jean Dominique Julian Sallaberryk, Ipar Euskal Herriko kantuak batu zituen, *Chants populaires du Pays Basque* liburuan, 1870ean (Sallaberry 1870). Hala ere, bi autore hauek ez dira izan garaiko kantugintzaren inguruan idatzi duten bakarrik.

Beste autore bat, Charles Bordes da. Honek Frantziako gobernuak bidalita, hamabi euskal abesti bildu zituen, eta 1899an musikologiako ikerketa bat egin zuen euskal musikaren inguruan, *La musique populaire des basques* liburuan. 1906an, S. Hiriartek Euskaldun Eliza Kantuak argitaratu zuen, 200 melodiek.

Jon Bagüesek ere bildu ditu euskal kantu bilduma guztiak Euskal Kultur Erakundeak antolatu zuen *Kantuketan* erakusketaren harira argitaratutako liburuan (Bagües 2002). Lehenago aipatuez gain, zerrendatzen ditu, besteak beste, Santestebanen bilduma (1862), Pascal Lamazourena (1869), José Manterolarena (1877-1880) edota Bartolomé de Ercillarena (1897). Ondoren ere beste bilduma

andana bat agertu da, baina gerra lehertu aitzinekoak izan dira aipatutako horiek guztiak.

### 3. Ikerketaren helburua eta metodologia

Grabaketak entzuteko aukera izan dugu, eta ukaezian da altxor bat dagoela hor. Hasteko, kantu horiek kantatzen dituztenak gerrako presoak izan zirela ohartzeak zirrara berezia eragiten duela kontuan harturik, preso horiei buruz gehiago jakitea beharrezkoa iruditu zaigu. Horregatik, lehenik jakin nahi izan dugu nor ziren preso horiek, nongoak ziren eta nola ibili ziren gerran gaindi. Kantatu zutenaren deskribapena ere egin da. Ikerketa galdera nagusia, ordea, da zein litzatekeen modu egokia kantu horiek eta kantu horien grabaketaren historia transmititzeko.

Helburu horiei erantzuteko, elkarrizketa sakonak eta eduki analisia egin ditugu. Euskal Kultur Erakundeak daukan 85 fitxategi soinu-dun osatutako grabaketa bilduma aztertzea izan da lehen urratsa. Berlingo Etnologia Museoko bilduma 34 grabaketaz osatuta dago, eta Humboldt Unibertsitatekoa, aldiz, 51 grabaketaz.

Grabaketak aztertu ditugu arlo hauen arabera: euskalkia, kantuak edo narrazioak, erlijiosoak edo profanoak, kantugintza, preso bakoitzaren grabazio kopurua, eta preso bakoitzak abestutako abestien zerrenda. Horrez gain, preso bakoitzaren biografia ere aztertu dugu.

Halaber, presoen biografia laburra egin nahi izan dugu. Horretarako, Pirinio Atlantikoetako artxibora jo dugu, eta soldadu bakoitzaren armadako matrikulua fitxa aztertu dugu. Horrez gain, grabaketekin batera aztertu ahal izan ditugu grabaketa bakoitzari buruz egindako fitxak, eta hor informazio franko ageri da grabaketa egin duten pertsonen buruz: ikasi zuten ala ez, zein hizkuntza zekiten, non zeuden preso eta abar.

Bestetik, elkarrizketa sakonak egin ditugu, kantu horien eta euskal historia-ren eta kulturaren transmisioa nola egin daitekeen jakiteko, eta kantu horiek nola erabil litezkeen argitzeko. Horretarako, grabaketa horiei buruz gehien ikertu duten elkarrizketak egin ditugu, hala nola Inaxio Lopez de Aranarekin eta Lourdes Izagirrerekin.

Inaxio Lopez de Aranak (Gasteiz, 1965) euskal filologa ikasi zuen, eta urte batzuk geroago, Itzulpen Masterra egin zuen. Gaur egun, itzulpen zuzentzailea da Eusko Jaurlaritzan. Lehenago, hamabost urtez itzultzailea izan zen Eusko Legebiltzarrean eta Eusko Jaurlaritzan. Terminologo-lanak ere egin ditu, Administrazioan. Ikerkuntzaren eremuan, euskarazko soinu-grabaziorik zaharrenak aurkitzen, iker-tzen eta, ahal duen neurrian, zabaltzen dabil, 1996az geroztik.

Lourdes Izagirre (Zumarraga, 1962) Goethe-Universität Frankfurt am Main-eko euskara irakurlea da. Euskal Herriko Unibertsitatean Filosofia ikasi zuen urte batez, ondoren, antropologia, soziologia eta erromanistika ikasketak egin zituen Freire Universität unibertsitatean, Berlinen. Grabaketa hauekin harreman estua du, hain justu, Berlingo Etnologia Museoak eskatuta, euskal grabaketa hauek transkribatu eta alemanera itzuli baitzituen.

Bildutako kantu horiei buruz galdetu diegu, baina baita ere kantu horiekin egin behar litzatekeenari buruz, gizartean zabaltzeari begira.



Kantu horien, euskal kantagintzaren eta kulturaren transmisoari dagokionez, Mondragon Unibertsitateko Euskal Kulturaren Transmisioa aditu tituluko arduradun eta Sorguneak ikerketa-taldeko kide den Nekane Goikoetxearekin egin dugu elkarrizketa. Nekane Goikoetxea (Deba, 1970) euskal filologian lizentziaduna eta Psikodidaktikan doktorea da. Linguistika normalizazioko departamenduan aritu da EMUN enpresan. Soziolingustika Klusterreko Eralan proiektuko arduraduna izan da.

Azkenik, zenbait kantariri ere galdetu diegu kantu horiek sorrarazten dien zirrarez. Jean-Mixel Bedaxagar, Xabi Etxeberri, Maider Bedaxagar, Mikel Urdangarin eta Kepa Junkerari galdetu zaie beren iritzia. Bedaxagar aita-alabek grabaketak entzunak zituzten eta kantaeraz egin zituzten zenbait ohar eta kantari haiei buruzko ikerketa batzuk ere eginak zituzten. Mikel Urdangarinak eta Kepa Junkerak berek kantatu izan dituzte, geroztik, grabaketa haietan agertzen ziren zenbait kantu, bereziki “Atharratzeko jauregia” eta “Maitia nun zira”. Haien erreakzioa ere jaso nahi izan dugu.

## 4. Gerra garaiko kantuak eta kantariak

### 4.1. Presoen ibilbidea

Bederatzi ziren Alemaniako ikerlarien grabaketetan parte hartu zuten presoak: Lapurdiko lau, Zuberoako hiru eta Nafarroa Behereko bi. Hauek ziren bederatzi presoak, adinaren arabera sailkatuak\*:

- St Jean Bidegarai (Garindaine, Zuberoa)
- Jean-Baptiste Suhas (Arrangoitze, Lapurdi)
- Joseph Jauregibehere (Lorraine, Zuberoa)
- Pierre Mendiburu (Armendaritze, Nafarroa Beherea)
- Antoine Suhas (Arrangoitze, Lapurdi)
- Jean-Baptiste Mendiburu (Donibane Lohizune, Lapurdi)
- Pierre Labadie (Hazparne, Lapurdi)
- Pierre Azkarategi (Altzai, Zuberoa)
- Laurent Isuribehere (Larresoro, Lapurdi)
- Jean-Nöel Irigoien (Ainhize-Monjolose, Nafarroa Beherea)

Bakoitzaren xehetasunak emango ditugu xehekiago, datozen lerroetan.

#### 4.1.1. St Jean Bidegarai

1882ko ekainaren 19an jaio zen Garindainen (Zuberoa), eta Maulen bizi izan zen. François Bidegarai zuen aita eta Marie-Louise Karrikart ama. Espartingilea zen. Grabaketetan parte hartu zuten preso guztien arteko helduena zen.

---

\* Euskal abizenak euskal grafiaz jarri dira lan honetan, *Berria*-ren estilo liburuari jarraiki. Horra euskal grafiaz jarritako abizen horiek, grafia ofizialean: Bidégaray, Jaurègiber, Ascarateil, Issuribehère, Irigoyen.

1903an atzeratu zioten soldaduska, eta 1904ko azaroaren 16an sartu zen armadan. Une baterako etxera bidali zuten bronkitisagatik, 1905eko uztailaren 6an. Berriz itzuli zen armadara 1906ko maiatzaren 26an.

Gerrara iritsi zen 1914ko abuztuaren 6an. 1914ko abuztuaren 29an desagertu zen Marbeck-en. Quedlimburg-en egon zen preso. 1919ko urtarrilaren 29an itzuli zen etxera.

Gerra bukatu ondoren, hainbat domina eman zizkioten. 1921ean jendarme gisa hasi zen lanean.

#### **4.1.2. Jean-Baptiste Suhas**

1884ko irailaren 9an jaio zen Arrangoitzen (Lapurdi). Mathieu Suhas eta Sabine Oiharzabal ziren haren gurasoak. Basusarrin bizi izan zen, eta ofizioz hargina zen. Bi haurren aita zen.

1905eko urriaren 10ean iritsi zen armadara, 49. Infanteria Erregimentura. 1906an kaporal kargua eman zioten. Soldaduska bukatu zuen 1906ko azaroaren 6an. Portaera ona izan zuelako agiria jaso zuen.

Gerrara iritsi zen 1914ko abuztuaren 4an. Craonnelle-en desagertu zen 1914ko irailaren 21ean. Zerst-en sartu zuten preso. 1919ko urtarrilaren 8an askatu zuten, eta Alsazian barrena eraman zuten. Bere armadaren eskualdera (18. armada gorputzaren eskualdea) eraman zuten 1919ko urtarrilaren 25ean. Baionako egoitzara eraman zuten 1919ko martxoaren 22an.

Antoine Suhas haren anai gaztea ere egon zen preso, eta haren boza ere grabatu zuten alemanek.

#### **4.1.3. Joseph Jauregibehere**

1884ko azaroaren 7an jaio zen Larrainen (Zuberoa), eta Gotainen bizi izan zen. Bernard Jauregibeheren eta Marie Iribeherreren semea zen. Espartingile gisa lan egiten zuen. Bi haurren aita zen.

49. Infanteria Erregimentura bidali zuten 1905eko urriaren 10ean. Soldaduska bukatu zuen 1907ko irailaren 25ean.

Gerra hasi zenean, Rochefort-eko Kolonia Infanteriako 3. Erregimentuan sartu zuten. Gerra tokira iritsi zen 1914ko abuztuaren 4an. 1914ko abenduaren 28an desagertu zen Maise-n. Gerrako preso egon zen, Meschede-n, 1914ko abenduaren 28tik 1919ko urtarrilaren 26ra.

#### **4.1.4. Pierre Mendiburu**

1885eko uztailaren 16a jaio zen Armendaritzen (Nafarroa Beherea), eta han bizi izan zen. Dominique Mendiburu eta Marie Darritchon ziren haren gurasoak. Ofizioz hargina zen.

Soldaduskan sartu zen 1906ko urriaren 8an, 27. Ehiztarien Batailoian. 1908ko urtarrilaren 18an etxera bidali zuten, bronkitisa zeukalako. 1908ko azaroaren 28an armadarako osasuntsu zegoela erabaki zuen Baionako batzorde bereziak, eta 49. Infanteria Erregimentura bidali zuten, 1909ko apirilaren 19an.

1914ko abuztuaren 3an iritsi zen gerrara. 1914ko abenduaren 28an desagertu zen Minaucourt-en. Preso egon zen Meschede-n. 1919ko urtarrilaren 26an itzuli zen etxera.

#### **4.1.5. Antoine Suhas**

1885eko irailaren 8an jaio zen Arrangoitzen (Lapurdi), Jean-Baptiste Suhasen anaia. Mathieu Suhas eta Sabine Oiharzabal ziren haren gurasoak. Basusarrin bizi izan zen, eta ofizioz eiherazaina zen.

1906ko urriaren 8an sartu zen 49. Infanteria Erregimentuan. 1908ko uztailaren 21ean bukatu zuen soldaduska. Ongi portatu zelako agiria jaso zuen

Gerrara iritsi zen 1914ko abuztuaren 4an. 1914ko irailaren 21ean desagertu zen Craonnelle-en. Zerbst-en sartu zuten preso. 1919ko urtarrilaren 8an askatu zuten eta 1919ko urtarrilaren 25ean itzuli zen 18. armada gorputzaren eskualdera, eta 1919ko martxoaren 22an Baionako kuartelera (49. Infanteria Erregimentuaren egoitzara). 1919ko martxoaren 29an bidali zuten etxera.

Azpirarratu behar da bi anaiak egun eta leku berean desagertu zirela (1914ko irailaren 21ean, Craonnellen, Andereen Bidearen inguruan), eta leku berean egon zirela preso (Zerbst-en) eta egun berean askatu zituztela (urtarrilaren 8an). Hots, batera egon ahal izan ziren gerra garaian eta presondegi garaian.

#### **4.1.6. Jean-Baptiste Mendiburu**

1889ko abuztuaren 7an jaio zen, Donibane Lohizunen (Lapurdi). Dominique Mendiburu eta Catherine Intxauzpe ziren haren gurasoak. Laboraria zen. Ez zekien irakurtzen.

1910eko urriaren 10etik 1912ko irailaren 25era bitartean egin zuen soldaduska 49. Infanteria Erregimentuan. Gerra lehertu eta berehala bidali zuten frontera. 1914ko abuztuaren 8an joan zen Baionatik. Lehen gudu nagusietako batean desagertu zen, hala nola Gozée-n, Belgikan, 1914ko abuztuaren 23an, euskaldun andana bat hil zen egunean. Munster-ren atxiki zuten preso, 1919ko urtarrilaren 6a arte.

#### **4.1.7. Pierre Labadie**

1891ko urtarrilaren 8an jaio zen Hazparmen (Lapurdi), eta han bizi izan zen. Arnaud Labadie eta Marie-Baptiste Poxelu ziren haren gurasoak. Nekazari lanetan aritu zen. Grabaketetan parte hartu zuten bederatzi pertsonen artean, eskolatua izan ez zen bakarra zen: ez zekien irakurtzen eta idazten, eta zekien hizkuntza bakarra euskara zen. Gainerakoek bazekiten idazten eta irakurtzen, eta euskara bazen ere haien ama hizkuntza, frantsesa ere mintzo zuten.

Armadara deitu zuten 1912ko urriaren 10ean, Baionako 49. Infanteria Erregimentura. Oraindik soldaduska egiten ari zen gerra lehertu zenean, 1914ko abuztuaren 2an. Desagertu zen 1914ko abuztuaren 23an, Gozée-ko guduan. Preso sartu zuten Dülmen-en. 1918ko uztailaren 5ean hil zen Lazaret de Croflau-n, Alemanian preso zegoela.

#### 4.1.8. Pierre Azkarategi

1895eko urtarrilaren 3an jaio zen Altzain (Zuberoa), eta han bizi izan zen. Jacques Azkarategi zen haren aita, eta Henriette Lavanaimee, ama. Nekazaria zen.

Deitu zuten gerrara 1914ko abenduaren 15ean, aste pare bat falta zitzaizkionean hogeiei urte betetzeko, baina ez zen agertu, Argentinan bizi baitzen, garai hartan. 1915eko martxoaren 29an itzuli zen eta 1915eko apirilaren 3an sartu zen armadan. 144. Infanteria Erregimentuan sartu zen. 1916ko maiatzaren 20an desagertu zen, Mort Homme inguruan. Preso sartu zuten 1916ko ekainaren 22an, eta Mannheim-eko esparruan egon zen. Alemaniatik eraman zuten Bordelera, 1917ko uztailaren 8an. Erretiro pentsioa ematea proposatu zitzaion, eskuineko begia galdu zuelako gerrako zaurien ondorioz. Dossier hori 18. Infanteria Erregimenduak aztertu zuen eta eskaera onartu zuen, 1918ko urtarrilaren 26an.

#### 4.1.9. Laurent Isuribehere

1895eko uztailaren 7an jaio zen Larresoron (Lapurdi), eta han bizi izan zen. Pierre Isuribehere eta Josephinne Bidarten semea zen. Laboraria zen.

1914ko abenduaren 17an sartu zen gerran, boluntario gisa, hemeretzi urte baizik ez baitzituen. 1916ko irailaren 4an egin zuten preso Barleux-en. Münster-en egon zen preso, 1919ko urtarrilaren 21a arte.

#### 4.1.10. Jean-Nöel Irigoien

1895eko abenduaren 23an jaio zen Ainhize-Monjolosen (Nafarroa Beherea), eta han bizi izan zen. Jean Irigoien eta Marianne Landaburu ziren haren gurasoak. Nekazaria zen.

Gerrara iritsi zen 1914ko abenduaren 17an, hemeretzi urte bete baino lehenxeago. Ez zuen, beraz, aurrez soldaduska egin, eta gerrara joan zen boluntario gisa. 1916ko irailaren 4an hartu zuten preso Barleux-en, eta Münster-en egon zen preso. Armadatik libratu zuten 1919ko urriaren 20an, begi eskuineko bista murriztuta zeukalako.

### 4.2. Gatibu

Euskal soldaduak ordena kronologiko honetan sartu zituzten preso:

- 1914ko abuztuaren 23an, Pierre Labadie, Gozée-n
- 1914ko abuztuaren 23an, Jean-Baptiste Mendiburu, Gozée-n.
- 1914ko abuztuaren 29an: St Jean Bidegarai, Marbeck-en
- 1914ko irailaren 21ean, Jean-Baptiste eta Antoine Suhas, Craonnelle-n. Biak leku berean sartu zituzten preso eta egun berean askatu zituzten, 1919ko urtarrilaren 8an.
- 1914ko abenduaren 28an, Joseph Jauregibehere, Maisse-n
- 1914ko abenduaren 28an, Pierre Mendiburu, Minaucourt-en.
- 1916ko ekainaren 22an, Pierre Azkarategi, Mort Homme-en.



- 1916ko irailaren 4an, Laurent Isuribehere eta Jean-Noel Irigoien, Barleux-en. Biak leku berean sartu zituzten preso.

### 4.3. Grabaketen argazki zehatza

Berlineko Etnologia Museoko artxiboaren iraupena 1:04:39koa da eta Humboldt Unibertsitatekoa 1:26:13koa. Nahiz eta artxibo bi hauek bananduta aztertu, emaitzak ateratzeko bateratu ditugu.

Berlingo artxiboan, 34 grabaketa daude. Horietatik bi ez daude entzungai eta beste bat kalitate oso txarrean dago. Hala ere, kasu honetan kontuan izan behar da grabaketa artxibo bakoitzeko bi edo hiru abesti daudela, hau da, artxibo osoan 73 abesti entzun ditzakegu.

Humboldt-eko artxiboan aldiz, 51 grabaketa daude. Horietatik hiru ez dira euskaraz eta beste batek ez du audioa entzungai. Kasu honetan, grabaketa artxibo bakoitzeko abesti edo narratiba bat dago.

Beraz, artxibo biak batuta, orokorrean 85 grabaketa artxibo aurkitzen dira. Baina horietako hiru ez dira euskaraz, beste hiruk ez dute audio artxiborik eta beste batek hastapen txarra du. Beraz, euskarazko eta kalitatezko audioak guztira 78 grabaketa artxibo dira. Artxibo orokorreko 78 grabaketa artxibo honela zatituta dago: %60 Humboldt Unibertsitateko grabaketa artxiboak dira eta beste %40a Berlingo Etnologia Museokoak. Berlingo dokumentuetan, orotara 73 abesti izanik eta Humboldt-ekoan 47, orotara 120 kantu edo narrazio daude grabatuta.

#### 4.3.1. Euskalkiak

Euskal presoak Ipar Euskal Herrikoak ziren, beraz lapurteraz, zubereraz edo nafar-lapurteraz hitz egiten zuten. Artxiboen dokumentuetan honela izendatzen zituzten euskalkiak: “*Labourdinisch*” lapurteraz zirela esateko; “*Niedermavarrisch*” nafar-lapurtera adierazteko; eta bukatzeko, “*Souletinisch*” zubererazkoei buruz. Berlingo kasuan, bakarrik lapurtera eta zuberera daude. Dena den, artxibo honetan kontuan izan behar da, sei alditan bi presok batera kantatzen dutela, eta horietatik lau alditan, bi euskalki desberdinetan. Aldiz, Humboldt Unibertsitatearen kasuan, hiru euskalkiak badaude, lapurtera, zuberera eta nafar-lapurtera.

Bi artxibo hauen emaitzak batzerakoan, gehien erabiltzen den euskalkia zuberera dela ateratzen da, %54rekin. Lapurtera haren atzetik doa %40 batekin. Eta nafar-lapurtera oso urrun gelditzen da, bakarrik %6 batekin.

#### 4.3.2. Kantuak edo narrazioak

Grabazio artxiboak bi kategoriatan banatu ditugu: alde batetik, kantuak eta bes-tetik, narrazioak. Grafiko hauek egiterakoan, grabazio artxiboak izan ditugu kontuan eta ez abesti kopuruak. Hain zuzen ere, lehen aipatu bezala, Berlingo artxiboan, grabazio artxibo bakoitzeko bi-hiru kantu agertzen dira; eta kasu honetan, 31 artxiboak kantuak dira. Hau da, %100 a dira kantuak. Aldiz, Humboldt-eko artxiboan %64a kantuak dira, eta geratzen den %36a narrazioak dira. Orotara, grabazio artxiboko %78a kantuak dira eta %22a bakarrik narrazioak dira. Kantu horien %17 kantatuz grabatzeaz gain, irakurriz ere grabatu zituzten.

#### 4.3.3. Profanoak edo erlijiosoak

Gaiaren arabera sailkatzeko, erlijiosoak ziren ala ez sailkatu ditugu. Grafikoan ikus daitekeen moduan, Berlingo kasuan 71 abestietatik bakarrik 4 dira erlijiosoak eta Humboldtetakoan 6. Beraz, orokorrean, grabazioen %92 profanoak dira.

#### 4.3.4. Grabatutako kantuak eta orduko euskal kantagintza

100 urte pasatako grabazioak direnez, hauek garai hartan argitaratutako kantutegietan aurkitzen diren aztertu dugu. Horretarako, Sallaberry-k idatzitako kantugintza eredutzat hartu dugu. Saillkapena egiterako orduan, honela banandu izan dugu: alde batetik, Salaberry-ren liburuan agertzen diren edo ez; ondoren, Jose Maria Etxebarriak idatzitako liburuan aurkitzen diren edo ez; aurreko bietan agertu ezean, euskal kantugintzan ([www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org)) begiratu dugu; bestetik, erlijio-kantuen kasuan, biblian begiratu dugu; eta bukatzeko, aurreko saillkapenetan aurkitu ez baditugu "ez dago" atalean sailkatu ditugu.

Berlingoan, aurkitu ez ditugun abestiak izan dira gehiengoa, ondoren Euskal kantugintzan agertzen direnak eta gutxi batzuk izan dira Sallaberryren kantugintzan daudenak. Humboldtetako kasuan aldiz, gehiengoa (%42) Sallaberryren kantugintzako abestiak dira, %29 dira Euskal Kantugintzan agertzen direnak, eta %23 dira Jose Maria Etxebarriak bere liburuan argitaratutako itzulpenak. Gutxi dira ezagutzen ez ditugun abestiak, %6 bakarrik.

Grabaketa guztiak kontuan hartuta, kantuen %32 Euskal kantugintzan agertzen diren abestiak dira. %31 dira inon agertu ez direnak (ez Sallaberry-ren bilduman, ez Euskal kantugintzan, ez Biblia, ez Jose Maria Etxebarriaren liburuan). Sallaberryren bilduman dauden abestiak %24a dira. Gutxien agertzen direnak Bibliako pasarteak dira, hala nola %4.

#### 4.3.5. Preso bakoitzaren grabazio kopurua

Jarraian, preso bakoitzak abestutako eta irakurritako grabazioak aztertu ditugu. Hemen Berlingo artxiboko kanta guztiak kontuan hartzen dira, baita binaka abestutakoak eta errepikatuak ere. Taula honetan ikus daiteke pertsona bakoitzak zenbat abesti/narrazio egin zituen.

Presoak	Berlingo Etnologia Museoan dauden grabaketak	Humboldt Unibertsitatean dauden grabaketak
Jean Bidegarai		3
Jean-Baptiste Suhas	10	3
Joseph Jauregibehere	48	10
Pierre Mendiburu		1
Antoine Suhas	21	17
Jean-Baptiste Mendiburu		1
Pierre Labadie		3
Pierre Azkarategi		6
Laurent Isuribehere		4
Jean-Nöel Irigoien		4

Grabazio gehien egin dituen Josephe Jauregibehere izan zen, 58 grabazioekin. Segidan, 38 grabazioekin Antoine Suhas izan zen. Gutxien egin zituena Pierre Mendiburu eta Jean-Baptiste Mendiburu izan ziren, grabazio batekin bakarrik. Gainerako presoek hiru eta hamalau grabaketeta bitartean egin zuten.

#### **4.3.6. Preso bakoitzak abestutako abestien zerrenda Abestutako kantuak**

Bukatzeko, preso bakoitzak abestutako abestiaren zerrenda egin dugu, kantu horien gaur egungo izena jarrita. Jarraian zerrendatu ditugu preso bakoitzak kantatutako kantu ezagunenak.

##### **Antoine Suhas**

- Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola
- Xuriko
- Eskualdun baten letra mila bederatzi ehun eta hamazazpian (bi aldiz)
- Beskoitzeko besta
- Mila zortzi ehun hemeretzi (bi aldiz)
- Lurraren pian (bi aldiz)
- Maitia nun zira? (bi aldiz)
- Ikazketako mandoa
- Eztei ederrak Euskal Herrian
- Senpereko kantuak
- Agur adiskidea, Jainkoak egunon
- Antton eta Maria
- Kaiku
- Argia dela diozu
- Dama gazte xarmant bat
- Kantoreño hauk gure herrian amodioaren gainean
- Bi gazten kitatzea
- Iruñeko ferietan
- (Izenik gabe) (bost grabaketa)

##### **Jean-Baptiste Suhas**

- Adios izar ederra
- Uso zuria
- Ume eder bat
- Lili bat
- Huna bildotz ezti
- Iruten ari nuzu
- Agur Maria
- Ziburutik Sarara

##### **Jean-Noel Irigoien**

- Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola
- Gerezi ondo bizkarrean zuen erbia
- Iruñeko ferietan
- Kukuruku

### Joesph Jauregibehere

- Zü zira, zü (bi aldiz)
- Goizian goizik jeiki nündüzün (bi aldiz)
- Arrollanen haurzaroa
- Juif erranen pasagea
- Arigzari ederra
- Aymunen lau seme
- Gaztetasunak bainerabila
- Prima ejerra
- Goizetan jeikhitzean
- Gizon banaiz
- Bihotzetik minez nago
- Bortian Ahüski
- Adios ene maitia
- Ürzo lüma gris gaxua
- Itsasu Olhakoko
- Mendan zoin eder
- Xarmagarri bat badit
- Atharratz jauregian
- Donostiako hiru damatxo
- Partitzeko tenorea
- “Hotzaingünieki”
- “Agot artagnaie kantoriak”
- “Santa Graziko kantoriak”
- “Karikarten kantoriak”
- “Lau korteliar gazte”
- “Amodiozko begi xarmanti”
- “Abentuko gaietan”
- “Hirigoyenen kantuak”
- “Ligets eren kantoriak”
- “Jente hunak”
- “Uharte jauregian”
- “Maiatzian eder ta”
- “Espil mendililien kantoriak”
- “Gaztalondoko kantoriak”
- “Lürrian behar eta”
- “Lakarriko kantoriak”
- “Esposa-esposen kantoriak”
- “Belhaude bortietan”
- “Oilanda gazte”
- “Emaztea ederra dien gizonak”

### Laurent Isuribehere

- Xarmangarria zira
- Iduzki denean



### **Pierre Azkarategi**

- Maskaradak
- Altzain heren sugia – Altzaiako dragona
- “Igaran merkatian”
- (izenik gabe)

### **Pierre Labadie**

- Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola (bi aldiz)
- Ebaslea lotu ez zuen ohoinaren istorioa

### **Pierre Mendiburu**

- “Urso xuri pullit”

### **Binaka: Antoine eta Jean-Baptiste Suhas**

- Oi mirakulu guziz
- “Donaduen kantuak”

### **Binaka: Antoine Suhas eta Joseph Jauregibehere**

- Iduzki denean
- Iragan besta biharamunian
- “Hasparreko koblak” (bi aldiz)
- “Gazte gjrelarik”
- “Adios Getaria”
- “Ahaide zahar hautan”
- “Iratiko Ulhagnen kantoriak”

### **Binaka: Jean-Baptiste Suhas eta Joseph Jauregibehere**

- Ziburutik Sarara
- Amodio ohore
- Gernikako arbola
- Adios, izar ederra

## **5. Presoen kantuak eta transmisioa**

### **5.1. Presoen kantuak eta euskal historia eta kulturaren transmisioa**

Hastapenean aipatu bezala, alemanek interes berezia zeukaten euskara ikertzeko. Grabaketa horiei buruzko interesa hurbilagotik jakiteko, elkarriaketa sakona egin dugu Lourdes Izagirrekin. Honek dio alemanek interesa zeukatela bai hizkuntzak gordetzeko, bai musika ezberdina jasotzeko. Hasieran, Rudolf Trebitsch Euskal Herriara joan zen fonografo batekin grabazioak egitera. Ondoren, gerra hasi zenean ez zeukaten erraztasunik bidaiatzeko, baina, aldiz, munduko toki guztietako presoak zeudela azaldu du Izagirrek:

“Gerra hasi zenean, gertatu zena izan zen aleman zientzilariek ez zeukatela horren errez bidaiatzea. Gerrak sortu zituen preso asko, eta preso hauek ez ziren bakarrik Frantziakoak, baizik eta mundu guztikoak. Orduan Alemanian ziren zientzilariek interes handia zeukaten,

presondegietara joan eta han bertan istorioak jaso edo musika jaso edo neurri biometrikoak egiteko. Beraien zientzilaria interesak jarraitu ahal izateko”.

Alemaniarrek ez zeukaten interes berezirik euskarari, Inaxio Lopez de Aranak beste elkarrizketa sakon batean esan digun moduan:

“ez zeukaten interes berezirik horretan. Hau da, preso batzuk euskaldunak ziren, mikrofono aurrean jarri baina hurrengoak agian birmanoak izango ziren, Britainiakoak edo beste herrialdekoak. Beraiek, oso oker ez banago, grabazioak eskuratu nahi zituzten, ahalik eta hizkuntza gehienetan. Baina euskarari interes berezirik ez zeukaten”.

Abesteko eta irakurtzeko, presoak aukeratzen zituzten, ez zuen edonork balio. Haien interesa hizkuntza ezberdinak ziren eta ez bakarrik hizkuntzak, baizik eta dialektoak ere bai, Lourdes Izagirrek azaldu duen moduan:

“jendea aukeratzeko, lehenengo aukeraketa multzo bat egiten zuten; euskalkiena irizpide bat zen, aho ona ere bai. Dokumentu batzuk daude presoen izenekin eta hor Dougeneke eta Urtelek aipatzen zuten presoek nolako ahotsa zuten, ahotsaren kalitatea nolakoa zen”.

Presoek beren euskalkian kantua edo testua idatzi behar zuten, eta ondoren, kantatu egin. Izagirrek azaldu du nolakoa zen momentu hori, eta esan du presoek sari bat jasotzen zutela:

“Zigarroak ematen zizkieten; hori badakigu. Gela beroa zen. Ingeles hizkuntzaren historia-lari batek esan zuen alkohola ere ematen zietela. Urtelek ez du alkohola aipatzen. Baina ingelesekoek aipatzen zuten gerra aurretik Ingalaterrara joaten zirenean eta bertan grabaketak egiten zituztenean, zigarroak ematen zizkietela. Eta gerran ere antzekoa egiten zutela”.

Inaxio Lopez de Aranak aipatu du grabazio hauen berezitasuna beren ingurunea dela, hau da, preso eremuetan eta, ziur aski, gogoz kontra egindako grabaketak direla. Beraz gehien interesatzen zaiona da ingurunea eta grabazioaren ingurunean gertatutako gauzak.

Gaur egun “interes handia” daukate audio horiek, Lourdes Izagirrek, elkarrizketan adierazi digunaren arabera:

“Alde batetik historiaren aldetik, jakiteko – Hego Euskal Herrian gehienbat – zer gertatu zen Lehen Mundu Gerran. Euskal historia berreskuratzeko. Baina presoen istorioa ikusita, niretzako lehenengo etikoki preso hauen ibilbidea edo bizitza errespetatu egin behar da. Bigarren zatia da, euskaldunentzat zer den euskal historia eta Euskal Herriarentzat honek zer suposatzen duen. Baina hor azterketa sakona egin behar da, hizkuntzalariek beraien aldetik, historialariek beraien aldetik...”.

Inaxio Lopez de Arana ere ados dago, eta dio audio hauek ekarpen handia direla Euskal Herriko historiarentzat:

“ondarearen zati inportantea direlako eta gure iragana islatzen dutelako. Museoko gauzak inportanteak dira? Ba bai, herri batean historiaren ondarearen isla direlako hauek ere bai. Garai bateko euskaldun informazio garrantzitsua eta baliagarria ematen dute”.

Grabaketa horiekin zer egin daitekeen pentsatzen hasterakoan, kulturaren eta historiaren transmisioa dator gogogra. Nola egin transmisio hori? Nola erabili grabaketak transmisio horretan? Galdera horien erantzunaren bila, Nekane Goi-

koetxearengana joan gara. Honek dio kultura ez dela bakarrik objektu artistiko bat:

“Kultura da gizarte oso bati balio batzuk erakusteko modua, kapital sinboliko bat, balio sinboliko bat, munduaren aurrean agertzeko modu bat... kontzeptu pixka bat zabala da kulturarena. Euskal kultura deituko genioke Euskal Herriaren ibilbidearekin lotuta dauden espresio kulturalari”.

Kultura eta historia ez dira gisa beran transmititu Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian. Azken finean ikastetxeetan ikasi da historia, eta Euskal Herria bi estatutan (Frantzia eta Espainia) banatzen denez, ezberdintasunak daude historia ikasterako orduan. Lourdes Izagirrek hau dio:

“Hegoaldean Espainiako gerrak markatu egin gintuen. Eskolan ez genuen ikasi ezta euskara hizkuntza bat zenik, ezta euskal geografia. Espainiako ibaiak bai, baina Euskal Herrikoak ez. Eskolak gauza bat irakasten zuen eta euskal familietan beste gauza bat. Iparraldean ere gauza bera. Frantziako estatua oso zentralista da. Eskolan frantsesa ikasten zen, ez zen euskara ikasten”.

Horregatik, ikergai honetako objektu nagusiari – presoen grabaketak – dagozkionez, Izagirrek argi dauka Iparraldekoek beste lotura izan dutela historia honekin, eta ez bakarrik gaur egun ikasten den historiarekin. Lehen Mundu Gerran Iparraldeak bakarrik hartu zuen parte. Lourdes Izagirrek dioenez Iparraldean familian barnean belaunaldi batetik bestera egin den historiaren transmisioa oso ezberdina izan da Hegoaldean egin denarekin. Gainera, aipatu duen bezala, administrazio bakoitzak historia bat islatzen du.

Nekane Goikoetxeak, bere aldetik, esan du nahi duenak ikasten duela euskal kultura, ez dela zerbait derrigorrezkoa. Aldiz, Euskal Herriko eskoletan estatuak markatzen du askotan zer ikasi behar den:

“Euskal kultura ikasten da propio gai horri garrantzia eman nahi dioten lekuetan; ikastolak proposamen bat dauka euskal curriculum lantzeko, eta hor integratzen da euskal kulturaren zatia. Euskal curriculum hori sortuta dago ikasle guztientzat, ez bakarrik ikasten duten umeentzat. Bere borondatea da herri guztiari zabaltzea, eskola guztietara zabaltzea. Baina derrigorrezkoa ez den proposamen bat da. Alderantziz, gure eskoletan daukagun sistema curriculumaren zati handiena estatuak markatzen dute”.

Beraz, askotan ikastolatik kanpo ikasi behar izan dira euskal kultura eta Euskal Herriko historia. Hori dela-eta Goikoetxeak dio bizirautea tokatu zaiola euskal kulturari, ez duelako izan ez hedabiderik, ez sare sozialik, ez ezer aurrera egiteko. Gainera atzean ez du estatu bat izan aurrera egiteko: “*Orduan zer egin da? ez da desagertu, hemen gaude. Egin duena da erresistentzia ariketa ikaragarri bat*”. Nekane Goikoetxeak aipatu du euskal kulturak etengabe bilatzen dituela zirrikituak aurrera egiteko, baina zirrikituak baino ez direla. “*Ondorioztatu dezakegu tresna horiek ez direla behar besteak euskal kultura transmititzeko modu sendoan. Horretaz aparte, militantziari esker, gizarte zibilari esker ematen da transmisio hori*”, dio Goikoetxeak. Gaineratu du dauzkagun tresna horiek ez direla nahikoak, baina dauzkagunak ere ez ditugula behar beste erabiltzen.

Beraz, askoz ere gauza gehiago egin daiteke euskal kulturgintzaren transmisioari begira, beti kontuan izanda honako hau, Goikoetxearen arabera:

“Izan ginen horren lekukotza emateko baino, gaur egun zertarako behar ditugu? Zer da transmitigarri eta zer ez? Zer interesatzen zaigu transmititzea eta zer ez? Balioan jarri behar dugu lehengotik datorkiguna, berritzeko eta gaurko gizarteari erantzuteko. Zentzu horretan euskal herritarrok izaten jarraitzeko 21. mendean, baina 21. mendeko gizaki izanda”.

## 5.2. Audioek transmititzen dutena

Jakiteko audio horiek nola transmititu daitezkeen eta zer transmititu daitezkeen audio horiekin, zuzenean galdetu diegu audio horiekin zuzeneko edo zeharkako harremana duten pertsoneri. Jakin nahi izan dugu zer sentitu zuten Inaxio Lopez de Aranak eta Lourdes Izagirrek entzun zutenean. Lourdes Izagirrek lehenengo aldiz Berlingo Etnologia Museoan/Humboldt Unibertsitatean entzun zituen, eskatu ziotelako euskaraz ziren ala ez identifikatzea. Hala ere, aukera izan zuen etxean entzuteko, izan ere, transkribatu behar zituen abestiak. 2013ko gabonetan lehenengo aldiz entzun zituen bere etxean, eta momentu oso berezia izan zela aipatu du, bazirudien bat-batean etxea jendez beteta zeukala:

“Irudikatu nuen Lehen Mundu Gerra, presondegi bat, euskal kantariak; eta oso-oso ahots onak zituzen, nabari zen ohituta zeudela abestera edo bertsolariak zirela, edo behintzat ohituak. Eta hemen entzutea, benetan hemen etxean bazeuden modukoa izan zen, holako sentazioa. Bizirik egongo balira bezala”.

Inaxio Lopez de Aranak ere hunkiduraz hitz egin du. Hala ere inprobisaziorik ez egoteak pena ematen dio. Azken finean, berak ikertu ditu garai hartako beste abestiak eta jendeak inprobisatuta botatako kantuak gehienbat. Hala ere, grabaketa haiei dagokienez, egoera da azpimarratuko zuena: “*preso zeuden, gogoz kontra ari ziren... milaka kontu. Kantatik haratago joaten diren galderak: nola bizi ote ziren? beldurtuta zeuden? edo gustura? ez dut uste gustura zeudenik*”.

Jean-Mixel Bedaxagar kantariak eta Xabier Etxeberri musikariak aipatu digute preso horien kantatzeko modu berezia. Gaur egun ez da horrela abesten. Hain justu, bederatzi preso hauek gorantza abesten dute, Xabier Etxeberriren arabera. Honen arrazoia, Jean Mixel Bedaxagarrek azaldu digu: “*Lehen, baserri-etxe bate-tik bestera komunikatzeko edo mendi batetik bestera komunikatzeko, oihuka egiten zuten. Hau dela eta, haien tonua gorantza egiten zuen.*”

Mikel Urdangarinek inprobisatzen duen kantu bat (“Atharratzeko jauregia”) badago grabaketa horietan. Bien kantaerak konparatu ditu, desberdintasunak eta antzekotasunak bilatuz. Kantu hori entzuteak “*zirrara*” bat eragin ziola aitortu digu. Ez zeukan haren berririk. Kepa Junkerak aipatu du “*Maitia nun zira?*” kantuak izan dezakeen sakontasun desberdina etxean kantatzean edo gerratik kantatzean.

Maidar Bedaxagar zuberotar kantari gazteak Berlinen berean entzun zituen grabaketa haiek. Hunkiturik mintzatu zaigu grabaketak entzun zituenean ukan zuen emozioaz: “*hastapenean baimena banuen zenbait kantu entzuteko, eta erran nuen kantu pare bat entzutearekin aski nuela, baina lehen kantua entzun nuelarik ulertu nuen dena entzun nahi izanen nuela*”.

Gaur egungo kantari horiek berak transmisioaren sinbolo dira, kantu haiek oraino kantatzen dituztelako.

### 5.3. Nola gizarteratu presoek kantuan istorioa?

Inaxio Lopez de Aranak, behin baino gehiagotan esan digu, berak webgune bat egingo zuela. Bertan, audio grabazioak entzungai izateko eta hauen inguruko ikerketa zein artikuluak batzeko. Hau da, kutxa digital bat sortzea, non grabazio hauek beti bertan egongo diren. Lourdes Izagirrek ere, ondo ikusten du webgune bat sortzerena.

Gaur egun, transmisiorako tresna eraginkorrena Internet dela onarturik, webgunearen ideia baino urrunago joatea pentsatu da. Webguneek baino mugimendu handiagoa daukate, orain, Facebook, Twitter, Youtube eta antzeko sare sozialek eta plataformek. Tresna horien bidez zabalduko zen produktu bat sortzeko esperimientua egin dugu gai honekin.

Grabaketa horiek sozializatzeko asmoz, 22 minutuko dokumental bat egin da, sarean zabaldu dena, doan. Batetik, Lehen Mundu Gerraren kontakizun labur eta soil bat egin da, batez ere aipatuz Euskal Herriko soldaduen kasuak. Halaber, grabaketa horiei buruzko informazioa bildu da, eta kontatu da nola jakin zen grabaketa horiek bazirela, zer harridura eragin zuten, eta zein baldintza dauden grabaketa horiek erabili ahal izateko. Grabaketa horien zati batzuk entzuteko aukera eman dugu.

Kantari horietatik batzuk zuberotarrak ziren, eta oraingo zuberotar gazteek gaur egun kantatzen dituzten kantu berak kantatu zituztela ohartu zen Bedaxagar. Eta horrek berak interes handia piztu zion. Transmisioaren sinbolo gisa, Alemanian grabatutako kantu ezagun baten lehen bertsoaren hasiera jarri dugu 1916ko ahotsetik, eta kantua jarraitzen du Maider Bedaxagar kantari gazteak. Irudi adierazgarria da hori, erakusten duelako 1916ko gazte batek kantatzen zuena kantatzen duela 2016ko gazte batek; hots, orduko teknika berriekin grabatuta eta gaur egungo ikus-entzunezko teknologiak erabilia, modu grafikoan erakutsi nahi izan dugu euskal kultura, euskal kantua eta euskara bizirik daudela oraindik.

Belaunaldiz belaunaldiko transmisioari bezainbesteko garrantzia eman nahi izan zaio gai hau Euskal Herri osoan ezagutarazteari. Lehen Mundu Gerra Ipar Euskal Herrian bizi izan zen, eta Hego Euskal Herrian oso gutxi aipatu izan da. Desoreka horren aurka egiteko asmoz, dokumentalean mintzarazi nahi izan ditugu Euskal Herriko probintzia guztietako kideak. Horrela, ageri dira, besteak beste, Iñaki Perurena harri-jasotzaile nafarra, Odei Barroso bertsolari laputarra, Eneko Sagardoi antzerkilari eta aktore bizkaitarra, Karnele Jaio idazle arabarra, Aitor Arregi film zuzendari gipuzkoarra...

Dokumentala publiko egin genuen, Euskal Kultur Erakundearen bidez, baina baita Facebook eta Twitter erabilia ere. Komunikabideek interes handia erakutsi zuten, eta gaiak presentzia handia lortu du Euskal Herriko hainbat hedabidetan. Dagoeneko sariren bat ere jasoa du dokumentalak, eta hainbat lekutan aurkeztu dugu.

## 6. Ondorioak

Transmisioa zen ikerketa hau egitearen kezka. Duela ehun urteko grabaketei buruz gaur egun euskaraz aritzea bera azpimarratzekoa da. Hain zuzen ere, alemanek ez zuten euskara bakarrik grabatu, beste hizkuntza pila bat grabatu zituzten; eta haie-tatik batzuk desagertuta daude gaur egun. Audio haiek gelditzen dira, desagertu-tako hizkuntza haien lekuko. Euskarak, aldiz, bizirik jarraitzen du: ehun urteko ibilbide horretan transmititu da. Kultura ere bai, eta baita soldadu horiek orduan kantatu zituzten hainbat kantu ere: “Maitia nun zira?”, “Antton eta Maria”, “Dama Gazte xarmant bat”, “Iruñeko ferietan”, “Ume eder bat”, “Lili bat”, “Adios izar ede-rra”, “Iruten ari nuzu”, “Prima ejerra”, “Bortian Ahüski”, “Atharratze jauregian”, “Donostiako hiru damatxo”, “Iduzki denean”, “Xarmangaria zira” edota “Gerni-kako Arbola” ziren, besteak beste, grabatu zituzten kantuak: hots, gaur egun ere euskal kantagintza tradizionalako kantu ezagunenetarikoak.

Kantu haiek ez ziren berriak, baina orduko soldadu gazteak gai ziren kantu haien transmititzeko, eta geroztik ere ahoz aho transmititu ziren, belaunaldiz be-launaldi. Aipatzekoa da ez zituztela bakarrik beren probintzietako kantuak kantatu. “Donostiako hiru damatxo” edota Iparragirrenen “Ume Eder bat” eta “Gernikako Arbola” ere iritsiak ziren soldadu haien artera. XIX. mende erdialdekoak ziren hiru kantuak, eta irratirik eta diskorik gabe ere zabaldu ziren lapurtarren eta zuberota-rren artera. Horrek ere erakustera eman dezake kantuen transmisioan ez zuela ete-nik eragiten Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko mugak. Harreman kulturalak naturalak zirela.

Ondoko urteetan, aldiz, distantziak urrundu dira. Hego Euskal Herriko jen-deak oso gutxi entzun du Lehen Mundu Gerrari buruz. Grabaketa zehatz hauei buruz ere oso gutxi jakin da berriki arte. Lehenago edo geroago grabatutako euskarazko kantuei buruzko informazio gehiago bazegoen; ez, ordea, Berlinen zueden horiei buruz. Honi buruzko azalpena ezin da aurkitu soilik Hego Euskal Herrikoek Ipar Euskal Herriko historiari buruzko ezagutza gutxi izatean. Dokumentu haien berri Berlingo museora joaten zirenek baizik ez zekiten, eta haiek gutxi batzuk bai-zik ez ziren.

Alemanian preso egondako soldadu euskaldunen grabaketen berri transmi-titzerako orduan, gaur egungo tresnetara egokitzea iruditu zaigu egokiena, hala nola ikus-entzunezko produktu bat sortzea eta hori sare sozialen bidez eta Inter-neten bidez zabaltzea. Ez zaigu iruditu nahikoa zela webgune soil bat sortzea, gaur egungo gazteak ez direlako webguneetan sartzen, baizik eta sare sozialetan dabil-tzalako.

“Maitia nun zira?” izeneko dokumental batean bildu dugu istorio hori, eta sare sozialetan eta komunikabideen edukitako oihartzunak gure espektatiba guz-tiak gainditu ditu. Gisa horretan, Berlingo artxiboan gordetarik zeuden dokumentu ho-rien eta kantatu zuten pertsonen istorioaren sozializazio handia egitea lortu dugu.



## 7. Bibliografia

- ALTZIBAR, Xabier. *Gilen Humboldt*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurilaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 1991.
- ARBELBIDE, Xipri. *14eko gerla 14 lekuko*. Baiona: Maiatz, 2016.
- BAGÜES, Jon. "La construction des monuments musicaux". In: LABORDE, Denis, *Kantuketan: l'univers du chant basque*. Donostia: Elkarlanean, 2002.
- BIDEGAIN, Eneko. *Lehen Mundu Gerra "Eskualduna" astekarian*. Bilbo: Euskaltzaindia. Iker, 2013.
- . *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria*. Baiona: Elkar, 2014.
- ESTORNÉS, Idoia. "El fenómeno vascofílo en la Europa de la primera mitad del siglo XX (1900-1945)". In: *Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa = Kultur antolabide berriak ; Euskal herria eta Europa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1992. orr. 323–336.
- ETXEBARRIA, Joxe Maria (TREBITSCH, Rudolf, URTEL, Hermann (and BOUDA, Karl (2008). *Euskarazko grabaketak 1913-1917 = Grabaciones en euskera*. Bilbao: Erroteta, Hiru Hego.
- GARAT, Jacques. *Deserteurs et Insoumis Basques de la Grande Guerre*. Baiona: Elkar, 2014.
- GIESE, Wilhelm. Hermann Urtel. *RIEV*. 1926. Vol. 17, no. 4, orr. 624–625.
- IZAGIRRE, Lourdes. "Euskarazko kanten grabaketak. Gerra Handiko presoen sentimendu musikatua". *Argia*. 2015eko martxoaren 8a. Vol. 2452.
- LANGE, Britta. South Asian soldiers and German academics. Anthropological, linguistic and musicological field studies in prison camps. In: *When the war began we heard of several kings'. South Asian Prisoners in World War I Germany*. New Delhi: Social Science Press, 2011. orr. 149–184.
- LINDEMANN, David. *Alemanerazko euskal bibliografia - deutschsprachige baskische Bibliographie - Bibliografía vasca alemana - I* [online]. Vitoria-Gasteiz: Fundación Sancho el Sabio, 2010.
- LOPEZ DE ARANA, Inaxio. "Rudolf Trebitschen 1913ko euskal grabazio musikalak (II)". In: *Lapurdum. Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques | Revista de estudios vascos | Basque studies review*. 2010. orr. 89–135.
- . Euskarazko Lehen Soinu Grabaketak. *Administrazioa Euskaraz*. 2014. Vol. 86, orr. 31–33.
- . León Azoulay: grabaziogintzaren hastapenak. *Egan*. 2015. No. 2, orr. 317–319.
- SALLABERRY, J. D. J. *Chants populaires du pays basque. Paroles et musique originales recueillies et publiées avec traduction française* [online]. Baiona: Veuve Lamaignere, 1870.
- URKIZU, Patri, *1914-1918 Lekukoak*. Baiona: Maiatz, 2015.
- URTEL, H. El pasado y el porvenir de los estudio vascos en Alemania. In: *Eusko Ikaskuntzaren III. Kongresua: Gemika 1922. Hizkuntza eta Irakaskuntza*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1984. orr. 37–40.
- ZABALETA GORROTXATEGI, Iñaki. *Wilhelm von Humboldt: hezkuntza eta hizkuntza*. Donostia: Jakin, 2005.